

## TENISA

## HERRI KIROLAK

## KIROLDEGIA



Boris Becker.

### Beckerrek Wheatonekin jokatuko du Indianapolisen

## INDIANAPOLIS

Boris Becker zerrendaburuak David Wheaton estatubatuarren aurka jokatuko du Indianapoliseko Txapelketako final erdian. Alemaniarrak Jakob Hlasek suitzarrak kanporatu du final laurdenetan 7-5 eta 7-5eko emaitzaz. Partidu bukaran azaldu zuenez, «Hlasekek oso joko ona egiten du puntako tenisari aurka. Zerrendako lehen hamarrak gainditu ditu urte honetan».

Beste final erdian Jim Courier eta Pete Sampras estatubatuarrek jokatuko dute. Courier, bigarren zerrendaburuak, Andrei Cherkasov kanporatu du eta Samprasek berriz Richard Fromberg.

## Jean Louis Fourcade: «Herri Kirol festibala instituzio bihurtu da»

41. edizioa jokatuko da bihar Donapaleun, 'Mixains' elkarteak antolatuta

**D**uela 40 urte Donapaleun, Nafarroa Beherean, 'Herri Kirol Festibala' hasi zen. Geroztik, ekintza honek jendetza handia biltzen du urtero. Ipar Euskal Herrian beranduago hasi ziren horrelako bilaldien eredu dirau. Festibal horren zuzendariak bere pasioa jakin arazi digu.

L. ETXEAHARRETA / DONAPALEU

Igande honetarako prestatu den festibalaren antolatzaileen lehendakaria da Jean Louis Fourcade, 'Mixains' taldekoa alegia. Duela hamabi urte hasi zen festibalean lan egiten eta seigarren urtea beteko du lehendakaritzan.

Herri Kirolen Festibala da jende gehien biltzen duena eta jadanik instituzio bilakatu da Donapaleun. Fourcaderen ustez, «ez da soilik Donapaleukoa, Ipar Euskal Herri osokoa baizik. Erran behar da 'Force Basque' jokoa departamentuko herri kirol ohiturazkoena dela. Nafarroa Behereko eta Zuberoako partaideak biltzen ditu».

Hasieran bederen, Amikuztarrak ziren biltzen Herri Kirol Festibalean. Fourcaderen esanetan, beti izan dira Zuberoako ekipoak: «Betidanik, Zuberoako ekipoak izan dira. Horrek dio bere xarma festibalarari ematen,



Herri kirol jaialdi bikaina izango da gaur Donapaleun.

preseski kantonamendu ezberdinetako taldeak biltzen bait ditu. Aurten Zuberoako hiru talde indartsu badi-tugu, Maule, Mitikile eta Urdiñar-betik.

### FESTIBALAREN IZPIRITUAK TINKO DIRAU

Festibala sei jokorekin hasi zen eta orain ere horrela dirau. «Sei jokuek jarraitzen dute, araudi berekin. Ez da kasik ezer aldatu, Donapaleun hori nahi genuelako. Sokatira da proba nagusia, hamar hamarren kontra, pisu finkorik gabe. Gero hor dira aizkolari, segalari, lasto altxari, zakulariak eta orga jokoa».

Hasiera batean, laborariak ziren gehienak indar jokoetan eta orain

teknika, material eta abar sartu badira ere, Fourcaderen ustez festibalaren izpiritua ez da aldatu. «Egia da laborarien indar lana aldatu dela. Bestalde partaide gazte batzuk beste kiroletan ari dira. Baina ez du horrek Donapaleuko festibalaren gogoa aldatzen. Jendeak gizon indartsuen ibilera maite du eta zorionez oraindik badira horrelakoak».

Ohargarri da publiko handia biltzen dela beti festibal honetan. Antolatzaileen lehendakariak dioenez, «beti hala izan da, Andre Mari ondo igandean. Konturatu gara egun hori ona zela eta ez genuela aldatu behar. Uste dugu publikoa satifos dela, jende ugari etortzeak frogatzen duen bezala».

### Kroaziarrak ez dira Jugoslaviako selekzioan egongo

## BEOGRAD

Kroaziako kirolariak Jugoslaviako selekzioetik kanpo geratuko dira eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea debekatuko zaie, Jugoslaviako Kirol ministeritzako bozeramaileek atzo adierazi zuten. Erabaki hau Kroaziako agintariek bere kirolarietako selekzioa ez joateko eskatu ondoren hartu du Jugoslaviako Kirol ministroak.

Kroaziako agintariek egindako eskaeraren ondoren, Goran Prpic eta Goran Ivanisevic tenislariak Davis Kopako kanporaketan selekzioarekin ez jokatzea erabaki zuten. Futbol federazioak ere uko egin zion parte hartzeari. Jugoslaviako federazio guztiek Nazioarteko Batzorde Olinpikoari (COI) azalduko diote erabakia hurrengo egunetan. Era berean, kroaziar jatorriko ordezkari guztiak nazioarteko kirol antolakuntzetatik kanpo geratuko dira. Arbitro internazionalerik dagokienez, hemendik aurrera ez dute nazioarteko txapelketetan arbitratzeko lizentziarik izango.

Honetaz aparte, nazioarte mailako txapelketak antolatzeko debekua ere jaso du Kroaziak. Hala ere, Kirol ministroak Kroaziako klubak uzteko aukera eskaini die kirolari kroaziarrei. Jugoslaviako agintariek epe batzuk jarri dituzte Kroaziarrek klubak utzi ahal izateko. Azken aukera bezala, kirol ministroa Kroaziako federazioak Jugoslaviako barruan sartzeko eskaera bat aztertzeke prest agertu zen.

## GOLFA



### OLAZABALEK ezin izan zuen Castle Rocken

bigarren ibilbidea amaitu. Hondarribitarra artean jokatzen ari zenean, antolatzaileek txapelketa bertan behera utzi zuten argi ezaren ondorioz. Olazabalek bost puntu ditu momentu honetan. Ian Baker-Finch liderrak baino hamasei gutxiago. Txapelketa hau Stableford sisteman jokatzen da eta puntuaketa honela egiten da: Albatros 8 puntu, eagle 5, Birdie 2, par 0, Bogey -1 eta hortik aurrera -3.

## TXIRRINDULARITZA

## Aranguren hamaseigarren postuan sailkatu zen puntuaketa proban

## STUTTART

Joseba Aranguren txirrindulari bizkaitarrak hamaseigarren postua lortu zuen puntuaketa proban Stuttgarteko Munduko Txapelketan, hamar puntu eta itzuli galduarekin. Aranguren oso ondo hasi zen, indarrean, baina karrera aurrera zihoan heinean, nabariago zen bere teknika eza eta indar eskasia. Aranguren ez zuen onenen gorpila jarraitzeko aukerarik izan, peralteak hartzeko arazo handiak izan bait zituen.

Bizkaitarrak oso ondo korritu zuen duela egun batzuk egindako kanporaketan, baina atzo ez zuen bere maila erakutsi. Honen arrazoia taldekako jazarpen olinpikoko proban egindako lan kaskarra izan daiteke, bertan oso urduri eta ideia gu-

txirekin agertu bait zen. Puntuaketa proba hasi aurretik, Aranguren oso kezkatuta azaldu zen, jazarpen olinpikoko probaren ondoren bere egoera morala ez bait zen onena.

Proba hau Bruno Rissi suitzarrak irabazi zuen, gainontzeko arerio guztiak hasieratik bukaera arte menperatu ondoren. Rissi lehenengo sprintean jarri zen sailkapen buruan eta tinko eutsi zion proba guztian zehar. Bigarren postuan iaz Japonen irabazi zuen Stephen McGlade australiarra sailkatu zen. Txirrindulari honek ondo erantzun zion Rissik proba erdian egindako erasoari, baina ez zen suitzarrak gainditzeko gai izan. Hirugarren postua Jan Bo Petersen danimarkararentzat izan zen.

Ainhua Ostolaza gipuzkoarra Munduko Txapelketako puntuaketa



Ainhua Ostolaza.

probatik kanpo geratu zen. Ostolaza hamaikagarren postuan sailkatu zen, hiru puntu lortu ondoren. Hamar lehenengo sailkatuek jokatuko dute hurrengo proba.